

5 milioi dokumentu itzuli ditu 2013an Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak

IAZ 5 MILIOI ITZULPEN baino gehiago egin ziren www.itzultzailea.euskadi.net webgunean, Eusko Jaurlaritzak zintzilikatuta duen erremintan. Euskaratik gaztelaniara, gaztelaniatik euskarara eta ingelesetik euskarara itzultzeko aukera dago.

Itzultzaile automatikoa 2012an jarri zen abian eta duela gutxi Eusko Jaurlaritzak hobetutako bertsioa aurkeztu du. Sarean erabiltzeko erreminta zena mugikorretarako egokitu dute. Android eta IOS sistema eragilea duten aplikazioak deskargatu eta itzultzaile automatikoa erabili ahal izango dute. Telefonoan testua idatzi beharrik gabe, ahoz diktatu eta mugikorrek berak idatziko du testua. Ondoren itzuli egingo.

Horrela kontatuta badirudi pagotxa ikaragarria dela itzultzaile hau. Ordea, testu laburrak eta webguneak itzultzeko gaitasuna du. Eta ohar garrantzitsua: giza-



kiaren ondorengo zuzenketarik gabe itzulpenok ez dira balekoak, itzulpen perfektua (inoiz lortuko bada) urrun dago. Jaurlaritzak ondoko oharra jarria du: “Laguntza-tresna bezala hartu eta kontuan izan emaitza BETI gainbegiratu behar dela”, baina tamalez galbahe horretatik soilik pasatako itzulpen ulertezinak batean eta bestean ikusten ditugu. Azkena, ARGIAN jaso genuen eskutitza, inprimagailu etxe ezagun batena. Zer esan nahi zuen jakin nahiz gero gaztelaniazkoa irakurri behar, derrigor.

Bahea

Paxkal Indok Aizu! aldizkarian esanak:

“Frantziak, 1870ean, gerra bat galdu zuen Alemaniaren kontra; I. Mundu Gerran, Iparraldeko herri guzietako hainbat gionezko borrokatu eta hil ziren, eta ez zekiten frantsesez. Nonbait, bataila asko galdu ziren soldaduak ez zirelako hizkuntza berean mintzatzen, ez zituztelako aginduak ulertzen. Traumatikoa izan da Frantzian gai hori, gerla horien ondoren erabaki zuten haur guziek frantsesa jakin behar zutela. Hori izan da Frantzian hizkuntza gutxituen erradikazioaren lehen fasea, gerra haien ondorioa da egungo pentsamolde arras nazionalista: denak berdin, hizkuntza bakar bat. Eta beste bat nahi izanez gero, familia giroan baino ez. Gauza serioak, gerra eta beste, frantsesez! Trauma handi hori, nonbait, oraindik hor dago. Frantses hizkuntza mito bilakatu da Errepublikan, guretzat oso zaila da frantsesaren kontra bizitzea”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Soldatak eta enplegua

SINDIKALGINTZA ABERTZALEAK mezua zabaldu du, soldatak igo eta enpleguaren sorrera hobetu dadin. ELAK eta LABek, nork bere aldetik, kanpaina bat iragarri dute eztabaida zabaldu eta mobilizazioak eginez negozioazio kolektiboan KPIaren gaintik legokeen soldata igoera lortu ahal izateko. Bi sindikatuek nabarmendu dute azken urteetan Euskal Herrian soldatak bortizki murriztu direla. Patronala salatu dute, NDFren aginduei jarraiki –lan kostuak %10 debaluatu nahi ditu– soldatak murriztearen alde segitzen duelako. Soldaten murrizketarekin enplegua sortzen dela dioten patronalaren mezua arbuiatu dute sindikatuok; enpresa-etekin handiagoak baino ez dira lortzen haien esanetan. Enpresariak langabezia eta prekarietate tasa handia baliatzen ari direla diote, modu horretan langileak beldurtu eta soldata baxuagoak onartzen dituztelako.

Soldatak igota enplegu gehiago sortzeko aukera gehiago dago; prestazio sozialak hobetuko lirateke eta diru-sarrera publikoa handitu. Erosteko ahalmen handiagoa balego, kontsumoa berriz aktibatuko litza-

teke, hazkundearen etsai den deflazio arriskua desgertuko litzateke, eta aberastasuna sortu. Beraz, soldatak KPIaren gaintik igotzeak esan nahiko luke, kontsumoa handituz aktibitate ekonomiko gehiago beharko litzatekeela, lan esku gehiago, langabezia gutxiago. Gizarte segurantzara kotizatzen eta zergak ordaintzen dituzten pertsona gehiago leudeke, horiekin laguntza sozialak bermatuko lirateke eta baita hobetu ere. Testuinguru horretan, garrantzitsua da gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasuna ere eztabaida horretan sartzea. Zenbait kalkuluren arabera, Hego Euskal Herriko gizonen soldata gordina emakumeena baino 7.217 euro handiagoa da; %33 gehiago kobratzen dute gionez.

Bi sindikatuek ideia berak edukita, komeniko litzateke bat egitea eztabaida hori enpresetara eta jendartera eramateko, baita mobilizazio sozialak deitzeko ere.

Juan Mari Arregi

